

GETARIA / Euskal Astean 2. Eskuko Euskarazko liburuen azoka

GETARIA. DV. Artzapek, maiatzaren 21etik 27ra bitartean ospatuko den II. Euskal Astearen barruan, Bigarren Eskuko Euskarazko Liburuen Azoka antolatu du, salmentatik lortutako dirua Artzape herri-aldizkariarentzat izango delarik. Horretarako herritarrei dei egiten die etxean dituzten euskarazko liburu, CDak edota DVDak eman ditzaten, ondoren prezio sinboliko batean azokan saltzeko. Artzape aldizkariaren aldeko ekimen honetan partehartu nahi duten herritarrek Udaletxera edo liburutegira eraman behar dituzte liburuak maiatzaren 7tik 17ra bitartean.

Azoka zabalik egongo da maiatzaren 18:00etatik 20:00etaramaiatzaren 21etik 24ra, eta Euskal Jai Egunean, Baserriko Produktuen Azokarekin batera, frontoian jarriko dira liburuak salgai goizeko 10:30etatik 14:00etara.